

## NOR GARA?

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua lehen arretako sistema bat da eta oinarrizko osasun-eramu osoa barne hartzen du (Orkoiien, Oltza Zendea, Itza, Atondo, Lete, Goñibar, Ollaran eta Etxauri). Bulego nagusiak Orkoiengo udaletxean ditugu.

Pertsonen, taldeen eta komunitateari zuzeneko laguntza ematen diegu, gizartean integratzen laguntzeko. Gizarte-ongizate handiagoa eta bizi-kalitate hobea lortzeko, pertsonak gizartean aske eta erabat garatzea da gure helburua, baita gizarte-bazterketa eragiten duten arazoak prebenitzea eta ezabatzea ere.

Arreta profesionala ematen dugu ondokoetan:

- Harrera, informazioa eta aholkularitza
- Haurren ongizatea eta tratu ona sustatzea
- Genero-indarkeriako egoerei heltzea
- Aholkularitza eta laguntza gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan.

## SARBIDEA

Aldez aurreko hitzordua gizarte-langilearekin (hasierako balorazio indibiduala).

## IKUSPEGIA

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan lan egiten duten programetako profesionalak taldelana egiten dute gainerako erakundeekin koordinatuta: Osasun-etxea, ikastetxeak, esku-hartzeko zerbitzu espezializatuak, komunitate-zerbitzuak... horiek arretaren lehen maila osatzen dute, hau da, lehen kontaktua dira zerbitzu publikoaren laguntza behar duten pertsonekin..

## PROGRAMAK

### 1) HARRERA-PROGRAMA

Harrera-programan, gizarte-langileak Gizarte Zerbitzuen eta gizarte-babesaren babes sistemaren inguruko informazioa eskaini, izapideak egin eta baliabideen inguruko orientabideak ematen ditu. Beste programa espezializatueta bideratzen dira erabiltzaileak (Gizarte Zerbitzuaren barruan nahiz kanpoan).

### 2) HAUR ETA FAMILIENTZAKO PROGRAMA:

Familiei eta adingabeen zuzendua dago, eta helburua tratu ona sustatzea, haien eskubideak babestea eta haurtzaroa sustatzea da. Aholkularitza, gizarte- eta hezkuntza laguntza, oinarrizko beharrak asetzeko prestazioen tramitazioa eta haurren babesaren arloko arreta espezializatua eskaintzen ditu. Programa horretatik dator **eskola sustatzailearen figura**: gizarte - eta hezkuntza inklusioko proiektuetan,

ikastetxe publikoetan, esku hartzea du helburu; gainera, esparru akademikoaren eta Gizarte Zerbitzuetako lehen mailako arretaren arteko bitartekoa da. Adingabeen eta haien familien eskola-prozesuan laguntzea du helburu.

### 3) AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO PROGRAMA:

Programaren helburua adinagatik edo osasunagatik mendekotasun-egoeran edo krisi-egoeran dauden pertsonen laguntza ematea da, hau da, eguneroko oinarrizko jardueretarako laguntza behar duten pertsonen. Programa horren barruan, **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua** dago. Etxean zuzeneko arreta ematen du, eta lau familia-langilez osatzen da. Helburua pertsona bere etxean, bere eremuan, mantentzea da, betiere baldintza onak izatekotan. Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioak izapidetzen dira, bai eta mendekotasun-maila eta egoera indibidual bakoitzari dagozkion baliabideak ere.

### 4) GIZARTERATZEKO PROGRAMA:

Programaren helburua zaugarritasun, arrisku edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzen eta laneratzen laguntzea da. Betiere, laguntza-prozesu baten bidez eta pertsonaren errealitatetik eta interesetatik abiatuta. Programa horren barruan **gizarte-enplegu babestuko programa** kudeatzen da, hau da, gizarte- eta lan-prozesuak abiatzeko baliabidea. Arreta berezia ematen die premia handia duten pertsonen.

## BARNE-KUDEAKETA

- Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuetako programetara bideratzea.
- Larrialdietarako laguntzen balorazioa.
- Elikagaien bankua.
- Udal-jantokietarako beka.
- Errenta bermatua jasotzeko balorazioa.
- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua.
- Laguntza Teknikoak Uzteko Zerbitzua.
- Guraso bakarreko familiaren edo familia ugariaren txartela eskatzea.
- Mendekotasunaren balorazioa.
- Desgaitasunaren balorazioa.



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernua**



AYUNTAMIENTO DE ORKOIEN - ORKOIENGO UDALA  
Iturgain Plaza 31160 ORKOIEN. NAFARROA  
TEL. 948 32 11 11 Fax. 948 32 11 12

LG NA 133-2025

Oltza Zendea, Itza, Atondo, Lete, Goñibar, Ollaran eta Etxauribar

**JARRI GUREKIN**  
**HARREMANETAN**

## ORKOIEN

Euntzeandia kalea, 1,  
P.K. 31160

Orkoien-Nafarroa

Astelehenetik ostiralera 09:00-14:00

## ORORBIA

Angulo kalea, 2  
P.K.: 31171

Asteartero eta ostegunero, 12:00etatik 14:00etara  
(aurretiko hitzordua)

## ETXAURI

Zaldualdea plaza, 1  
31174 Etxauri, Nafarroa

Hileko azken arteantea eta osteguna 10:00etatik  
12:00etara (aurretiko hitzordua)

**TLF: 948321031**

**P.E.: [ssbb@orkoien.com](mailto:ssbb@orkoien.com)**

**OINARRIZKO GIZARTE-  
ZERBITZUAK ORKOIENGO  
OINARRIZKO EREMUA**

**ENTZUN EGINEN DIZUGU**  
**INFORMAZIOA EMANEN DIZUGU**  
**ZUREKIN EGONEN GARA**